

Unibertsitateko
irakaskuntzarako
MgE-ren
baliabideak

4. LIBURUKIA

UNITATE DIDAKTIKOA 1

Emakumeak eta ekonomia: sistema sozioekonomiko desorekatua



Economistas
sin Fronteras

Egilea: Lucía Vicent

Unibertsitateko irakaskuntzarako MgE-ren baliabideak

4. LIBURUKIA

Egilea: Lucía Vicent, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.

Enkarguz: Mugarik gabeko Ekonomilariak.

Edizioaren koordinazioa: M^a Luisa Gil Payno.

Argitaletxearen diseinua eta maketazioa: Mejor (www.somosmejor.es).

ISBN: 978-84-09-56839-0.

Finantzatzailea:



Argitalpen hau Espainiako Agentziaren Lankidetzaren finantzazioarekin egin da. Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren (aecid), 2021/PRYC/000656 "Unibertsitatean Agenda 2030a eta GJHak zeharkatzen". Argitalpen horren edukia egilearen erantzukizuna eskusiboa da eta argitalpen honen edukiek ez dute zertan MgE-ren eta AECID-en posizioarekin bat etorri behar, ezta ikuspegi instituzionalarekin ere.

Era berean, argitalpen honen euskarazko itzulpena UCM 2030 Behatokiak egin du Agenda 2030 Zuzendaritza Nagusiaren finantzaketarekin.



CC BY-NC-ND 4.0 CÓDIGO LEGAL

Atribución-NoComercial-SinDerivadas 4.0 Internacional

Obra hau Creative Commons lizentziapean dago. Libreki kopia, banatu eta obra honen berri eman daiteke, betiere egiletza aitortzen bada eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada. Ezin da obra honetatik eratorritako obra bat aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es>



Unibertsitateko Irakaskuntzarako MgE-ren baliabideak

Mugarik gabeko Ekonomialariak (MgE) Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea da, (GGKE), 1997an ekonomia justu, solidario, jasangarri eta feministan interesa zutenen unibertsitate eremuko personengatik sortua.


Mugarik gabeko Ekonomialariak-ek bizitza erdigunean jartzen duen beste garapen eredu bat beharrezkoa dela uste dugu; hala, Unibertsitatea eragile sozial eta ezagutza transmisoretzat hartzen dugunez, honek hau posible bihurtzeko funtsezko zeregina du.

Hainbat ikerketatan, unibertsitateek ezagutzarekin, irakaskuntzarekin, politikarekin eta erakundeen kudeaketarekin lotutako erronkei aurre egiteko har ditzaketen estrategiak eta ikuspegiak aztertu ditugu. Zailtasun horiek gaur egungo testuinguruan sortzen dira, elkarren artean konektatutako hainbat krisitan, eta erantzun posibleak askotarikoak eta heterogeneoak dira.

Irakaskuntzaren esparru espezifikokoaren oinarrizko erronka, ulermen egokia bultzatzen duten ikasketa prozesuak erraztea eta gaur egungo desfioei kritika egitea da, errealitatea eraldatu eta kolektiboki, biziltzaren jasangarrituasunean baterragarriak diren beste antolamendu ekonomiko eta sozial batzuk sortzeko.


Aipatutako guzti honetan laguntzeko MgE-ren Baliabideak izeneko unibertsitatara bideratutako irakaskuntza bilduma sortu da.

Material gehiago aurkitu ditzakezu bilduma [honetan](#).



Aurkibidea

Aurkezpena	5
1. Unitate Didaktikoa	
Emakumeak eta ekonomia: sistema sozioekonomiko desorekatua	6
1. Unitate didaktikoaren sarrera	7
2. Fitxa teknikoa	9
3. Gaiaren inguruko hurbilketa teorikoa	12
4. Sekuentziazio didaktikoa	25
5. Emaizen ebaluazioa eta balorazioa	35
6. Erreferentzia bibliografikoak	36





Hitzaurrea

Sistema ekonomiko kapitalista aurretik zegoen patriarkatuan sustraituta egoteak eta horren ondoriozko inplikazioek baldintzatu dute emakumeen egoera ekonomikoa; ikusezin bihurtutako eremuetan zokoratu dituzte, sozialki eta ekonomikoki onarpen-mailarik txikiena duten eremuetan, erabakitze-ahalmenaren jabe diren botere-guneetatik urrun.

Ahalegin handiak egin diren arren genero-desberdinkeriek historian zehar iraunarazi eta erreproduzitu dituzten oztopoak ulertzeko eta gainditzeko, desperekotasunek bere horretan jarraitzen dute: ekoizpen- eta ugalketa-esparruko lanen banaketa tradizionala lehengoan dago, eta, horren ondorioz, emakumeak kalteberagoak dira dinamika ekonomikoaren efektu kaltegarrien aurrean.

Esparru horretan, beharrezkoa da erakunde ekonomiko nagusiek eta gizarte-taldeek ugalketarekin eta zaintzarekin zer konpromiso duten jakitea, lan horien banaketan dauden urritasunak ebaluatu ahal izateko; azken batean, emakumeek hartzen dituzte lan horiek, eta horrek haien bizitza- eta enplegu-aukerak zailtzen ditu. Diagnostiko horretatik abiatuta, neurrien agenda bat proposa daiteke, gizarteak generoaren ikuspegitik ekitatiboagoak izan daitezen, bai eta erantzunkideak ere, gizarte osoaren bizitzarako eta etorkizuneko iraupenerako beharrezkoak diren jardueretan.



UNITATE
DIDAKTIKOA

1

Emakumeak eta ekonomia: sistema sozioekonomiko desorekatua

1 Unitate didaktikoaren sarrera

Sistema ekonomiko kapitalista dela eta, genero-desberdinkeriek indarrean jarraitzen dute; hain zuzen ere, bizi-baldintza materialak bermatzeko baliabideetarako sarbidean gizonen eta emakumeen lekua hasieratik baldintzatu dutenek. Emakumeek lan-merkatuan tradizioz duten lekua subsidiarioa da, eta urrun dago enplegu-eremurik onuragarrienetatik. Hori dela eta, eremu horretan gertatu berri diren aldaketen ondorioz emakumeak lan-sarean sartu diren arren, lana aurkitzeko aukera txikiagoak dituzte oraindik ere, eta, ondorioz, gizon baino emakume gehiago dago langabezian, pobrezian edo gizarte-bazterketako arriskuan. Gainera, ugalketa-lanetan protagonismo argia dutenez, lan-zama handiagoa hartzen dute emakumeek, eta agerian geratzen da emakumeak diskriminatzen eta zigortzen dituen eredu desorekatuaren nagusitasuna.

Egia da azken mende erdian aurrerapen nabarmenak lortu direla emakumeek lan ordaindua lortzeari dagokionez, handitu egin dela zaintza-jarduera jakin batzuekiko konpromiso publikoa eta hobetu egin direla kontziliazio-aukerak; hala eta guztiz ere, agerian geratu da oraindik ere ezin dugula esan jarduerak banatzeko, aintzatesteko eta baloratzeko eredia berdintasunezkoa denik generoaren ikuspegitik. Historikoki aurreratuentzat hartu izan diren ekonomietan ere —genero-berdintasunaren arloan aurrerapenik gehien egin direnetan, hala nola Europako ekonomietan—, indarrean dago, oraindik, aurreko belaunaldietatik jasotako genero-esleipenak bere horretan mantentzen dituen eta emakumeei kalte egiten dien eredia.

Zenbait faktore aitzakia gisa erabili dira berdintasunaren arloko lorpen berriak geldiarazteko, eta zaildu egiten dute emakumeen egungo eta etorkizuneko errealitatea: batetik, ekonomia aurreratu horietan eta beste batzuetan XXI. mendeko egoera ekonomikoaren bereizgarri izan diren azken gertaerak, zurrumbilo ekonomiko handiak eragin dituztenak —esaterako, krisialdiak eta pandemia— eta, bestetik, indar politiko atzerakoi berrien oihartzuna. Lan-baldintzak narrastu egin dira, familiarik kalteberenentzat funtsezkoak diren politika publikoak gutxitu eta zerbitzu publikoetan eta asistentziako laguntzak murriztu; gure ekonomia eta gure inguruko beste batzuk zer egoeratan dauden erakusten dute horiek.

Hori dela eta, komeni zaigu ebaluatzea desberdinkeria ekonomikoa zertan den generoaren ikuspegitik, bi sexuek zer zeregin duten ugalketa sozialak eskatzen dituen baliabideak (ekonomikoak eta denborari eta ahaleginei lotutakoak) hornitzeko lanean, eta sistema ekonomiko kapitalistan jarduten duten erakunde ekonomiko nagusiek (merkatuak, estatuak eta familiek) gai horietan zer erantzukizun hartzen duten beren gain.

Unitate didaktiko honetan, emakumeen egoera ekonomikoaren iraganeko eta egungo egoerara eta erronketara hurbiltzea proposatzen dugu, bereziki Espainiako gizartean, eta gizonen eta emakumeen arteko lanen banaketan eragin duten aldaketak detektatzea, haien bizi-baldintzen eta -ibilbideen alde edo aurka jokatu dutenak, alegia. Xede horrekin, zenbait teknika baliatu dira proposamen honetan: problematikari buruzko teorien azterketa, informazio estatistikoaren analisia, benetako esperientziatarako hurbilpen etnografikoa, eztabaida kolektiboa eta argudiatutako eztabaida. Horiek aukera eman digute gure gizartean izan diren genero-baldintzatzaileak, eragiten duten eremuetan diskriminatzaileak izan direnak emakumeentzat, ezagutu eta aztertzeke.

2 Fitxa teknikoa

Irakasgai espezifikoak:

Unitate hau, jatorriz, Ekonomiaren atariko irakasgaietan (ekonomiari buruzko ikuspegi zabala dutenetan) garatzeko pentsatuta dago, bai eta indarreko sistema ekonomikoko botere-harremanak generoaren ikuspegitik lantzen dituzten irakasgaietarako ere. Gradu eta gradu bikoitzeko unibertsitate-ikasketen programetan, tratamendu horrekin bat datozen irakasgai hauek aurki ditzakegu:

- Nahitaezkoak eta enborrekoak. Ekonomiaren Hastapenak (lehen mailakoa, irakasgai hori ematen den gradu eta gradu bikoitzetan)¹; Ekonomia Politikoa (lehen edo bigarren mailako irakasgaia, hori eskaintzen duten programetan)², eta proposatutako gaiarekin lotutako edukia duten beste irakasgai batzuk (Antropologia Ekonomikoa, Genero Antropologia, Politika Soziala, Familia eta Migrazioak, Genero Sozializazioa, Familiaren Soziologia eta abar).
- Aukerakoak. Hauek dira gizarte-zientzien ikasketa-adarren barruan aurkitu ditugun aukera batzuk: Soziologia eta Gizarte Egitura; Ekonomia eta Generoa; Generoa eta Garapena, eta ekonomiaren arloan genero-ikuspegia txertatzen duten espezializazioko edo masterreko beste irakasgai batzuk.

¹ Adibidez, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Kudeaketa eta Administrazio Publikoa, Zientzia Politikoa eta Kudeaketa Publikoa, Merkataritza, Zuzenbidea, Zuzenbidea eta Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Ekonomia, Giza Baliabideak eta Lan Harremanak ...

² Antropologia, Zientzia Politikoak, Nazioarteko Harremanak, Soziologia ...


Helburu orokorra:

Unitate honen helburua da ikasleek ulertzea zein diren sistema ekonomiko kapitalistako mekanismo diskriminatzaile nagusiak, emakumeak mende hartzen dituztenak —arreta berezia jarrita ugalketa sozialerako beharrezkoak diren ahaleginak, denborak eta lanak banatzen dituzten mekanismoetan—, eta zein diren mekanismo horiek mantentzearen ondorioak. Bestalde, beharrezko ezagutzak eman nahi zaizkie ikasleei, genero-berdintasunaren arloan dagoen agenda politikoari buruz kritikoki hausnar dezaten eta aztertutako elementuak Espainiako ekonomian genero-berdintasunerantz egiteko gai izango den neurri-agenda batean sar ditzaten.

Helburu espezifikoak:

- Gogoeta egitea ekonomiaren helburu sozialaz, sistema ekonomiko kapitalistaren lehentasunez eta lanaren kontzeptuaren, banaketaren eta aintzatespen sozialaren hurbilketetan eragin duten baldintzatzaileez.
- Bi sexuek lanen sexukako banaketan duten posizio desparekoaren ondorioak ulertzea, eta ekoizpenaren eremuan nahiz ugalketaren eremuan egiten diren jardueren garrantzi soziala ezagutzea.
- Sistema ekonomiko kapitalista eta patriarkalak irauteak zer ondorio sozioekonomiko dakartzan jakitea, ikuspegi historikoa eta genero-ikuspegia aintzat hartuta.
- Giza premiei erantzuteko eta biztanleriaren bizi-kalitatearekin zerikusia duten ondasun eta zerbitzuak hornitzeko ardura duten erakunde nagusien (merkatuaren, estatuaren eta familien) zeregina baloratzea.

- Espainiako ekonomian zaintzaren arloan gizarte-taldeen eta eragile ekonomikoen zeregina aldatu duten gorabeherak eta joerak aztertzea.
- Zaintzaren eta ugalketaren gizarte-erantzunkidetasunarekin bat etorrita genero-ikuspegitik bidezkoagoak diren gizarteak lortzen lagunduko duen neurri-agenda bat proposatzea.



3 Gaiaren inguruko hurbilketa teorikoa

Jakina denez, baliabideak —urriak— eragile parte-hartzaileen artean nola antolatzen diren eta giza beharrak asetzeko eta ugalketa sozialerako nola erabiltzen diren aztertzen duen ezagutza-adarra da, oro har, Ekonomia. Gizarte batean jarduera ekonomikoa antolatzeko modua —edo, beste era batera esanda, helburu horretara bideratutako ondasun eta zerbitzuak ekoizteko eta hornitzeko eskura dauden baliabideak kudeatzeko modua— da sistema ekonomikoa.

XV. eta XVII. mendeen artean, ordena ekonomiko eta sozial berria sortu zen: kapitalismoa. Aurreko sistema feudala ordezkatzuz, ekonomiaren joko-arauak aldatu zituen kapitalismoak, eta azterketa ekonomikoan, ekonomiaren lehentasunetan eta helburuetan finkatu zituen interes-guneak. Sistema ekonomiko kapitalistan, merkatua finkatu zen ondasunak eta zerbitzuak trukatzeko gune nagusi, ekoizpen-bideen jabetza pribatua bihurtu zen gizartearen faktore egituratzaile eta kapital-metaketa ezarri zen funtzionamendu ekonomikorako eta haren jarraitutasunerako funtsezko eskakizun.

Horrenbestez, hauek dira, besteak beste³, eredu hori definitzen duten hiru ezaugarri nagusiak: a) Bi klase sozial egotea —etengabe gatazkan—, ekoizpen-bideen jabetza pribatuarekin duten harremanaren arabera: klase kapitalista, ekoizpen-bideen jabe dena, eta langile-klasea, bide horien jabe ez dena. b) Ekoizpenaren merkataritza-izaera, ekoizpen-prozesuaren helburua eta merkaturako orientazioa zehazten dituen —merkatuan saltzea eta transakzio horren ondorioz etekina lortzea da ekoizpenaren

³ Ezaugarri horiek aurreko unitateetan aipatu izan dira, beste hitz batzuekin (1. Desberdinkeria ekonomikoa eta progresibitate fiskala).

xedea—. c) Klase kapitalistak sortutako soberakina jabetza pribatuak bereganatzea, ekoizpenarekin jarraitzeko eta merkatuan mantentzeko beharrezkoa.

Ezaugarri horiek baliagarriak izan dira Ekonomiaren alorrean lantzea interesgarria denaren edo ez denaren mugak ezartzeko, eta sortutako soberakina metatzean oinarritutako eraldaketa-prozesutzat jotzeko lana (Recio, 1997; Vicent, 2017). Nahiz eta lanaren kontzeptuak konnotazio bereziak izan dituen kapitalismoaren etapa historiko bakoitzean, ikuspegi hegemoniko bat egon da beti, lanaren eta merkatura bideratutako jardueren arteko lotura sendotzen duena (Naredo, 2001; De la Garza, 2005). Horrenbestez, lana, lan ordaindua eta enplegua arau- eta erakunde-esparru berean bateratzeko joera dago; esparru horrek gizarte-pertzepzioetan eta ideia kolektiboetan du eragina, eta, aldi berean, merkataritza-jardueretara mugatzen ditu lana, lan ordaindua zein enplegua (Alonso, 1997 eta 2006; Prieto, 2007).

Lana eta enplegua ez dira gauza bera, eta, ildo horretan, zenbait ikuspegi heterodoxotatik dei egiten dute, ikuspegi ekonomiko konbentzionalek lanaren inguruan zabaltzen duten ikuskera baztertzeko, lana ordaindutako jarduera produktibistatzat hartzen baitute (Carrasco eta Mayordomo, 2000; Durán, 2012). Ekonomia Feminista osatzen duten ekarpenetatik eta Ekonomia Politikoaren ekarpen oso zehatzetatik, beraz, lanaren kontzeptuarekiko beste hurbilketa bat aldarrikatzen da; hain zuzen, ikuspegi zabalago bat, azterketa ekonomikoan normalean aintzat hartzen ez diren beste jarduera batzuk eta horiek gizarteko kideen artean nola banatu ezartzen duten harremanak barne hartzen dituen (Borderías et al., 1994; Carrasco eta Borderías et al., 2011). Gure iritziz, horrela soilik

bistara daitezke lanaren kontzeptuarekiko hurbilketa baten edo bestearen ondorio ekonomiko, sozial eta politikoak. Gainera, aukera ematen du, gizarteari irauten eta ugaltzen laguntzen dioten jarduera guztien garrantzia nabarmentzeko, horietan oinarritzen baita sistema ekonomiko kapitalista, funtzionatzeko eta irauteko.

«(Ekonomikoki) existitzen dena existitzen jarraitzea ahalbidetzen duten prozesuak agerian jartzea da ugalketaz hitz egitea» (Aglietta, 1979:4).

Baldin eta, ikuspegi konplexu horiek bezala, ekonomia ororen helburu soziala giza premiak asetzea eta biztanle guztientzako bizi-baldintza duinak bermatzea dela uste badugu —hau da, ez badugu onartzen lehentasunezko helburua hazkundera eta metaketa dela—, ontzat joko dugu lanaren definizioa helburu horretara bideratuta egotea. Hala, honela defini daiteke lana:

«(...) ugalketarako eta bizitzaren iraupenerako sozialki beharrezkoak diren ondasunez eta zerbitzuez hornitzea xede duen jarduera oro, merkataritzaren eremuan kokatuta egon arren helburu horietarako lagungarriak ez diren edo horien aurkakoak diren jarduerak alde batera utzita» (Vicent, 2017:36)⁴.

Lan bakarra enplegua dela zalantzan jartzera garamatza horrek, eta lana merkatu barruan eta diruaren truke egiten diren jardueretara mugatzen dela dioten ikuspegietatik urruntzera. Bestalde, definizio horrek merkataritza-

⁴ Esate baterako, horrelakoak dira ingurumenerako eta pertsonen osasunerako kaltegarriak diren natura-baliabideak erauzteko jarduerak eta armak egitekoak; izan ere, barne-produktu gordinerako kontuan hartzen diren arren, ez dute zerikusirik gizartearen bizi-baldintzak hobetzearekin.

esparrutik kanpoko lan-eremuak ere aintzat hartzera bultzatzen gaitu, eta lanaren banaketan eta gizarte-aintzatespenean eragiten duten harremanak erakusten dizkigu. Eta, azkenik, lanaren definizio horrek agerian uzten du zer ondorio sozioekonomiko dituzten gizarte-taldeek lanarekin duten harremanaren arabera; hau da, ezagutzera ematen dizkigu sistema ekonomiko kapitalistak lanak sexuaren arabera banatzeko ezarritako irizpidearen oinarri diren genero-desberdinkeriak⁵.

Sexuaren araberako lan banaketa eta emakume langileen esplotazio bikoitza:

Ikusi dugunez, lantzat hartzen denaren eta ez denaren arteko mugak ez dira naturalak edo unibertsalak; aitzitik, ikuskera nagusiaren araberakoak dira, eta aldatu egiten dira, testuinguru jakin batean gizartean dauden iritzien arabera, eragina baitute muga horietan (De la Garza Toledo, 2005). Ikuspegi ekonomizista nagusiek baldintzatzen dute mendekotasun kontzeptual hori; baina ez horiek bakarrik, baita gizartea antolatzeko beste sistema batek, —kapitalismoaren aurreko— patriarkatuak, inposatzen duen genero-diskriminazioak ere. Kapitalismoa patriarkatuan sustraitu zen, eta bizikide izan dira harrezkero.

⁵ Lana ulertzeko modua funtsezkoa da «sexuak bereizteko, generoak eraikitze eta hierarkia sozialak ezartzeko» (Todaro eta Yáñez, 2004:15).

Kapitalismoa nagusitu aurretik, antolamendu patriarkalak kontrolatzen zuen harreman ez-ekonomikoen eredu baten mende zegoen aparatu soziala. Patriarkatuak, eraikuntza sozial eta politikotzat hartuta, gizarte-taldeen arteko harreman desorekatuak iraunarazten ditu, sexuan oinarrituta (Millett, 1969)⁶.

Harremanen bidezko antolamendu-sistema horrek, ekonomia orotan ezkutuan dagoenak, emakumeen balio-eza adierazi eta instituzionalizatzen du, eta, ustezko gutxiagotasun biologiko batean oinarrituta, balorazio sozialik handieneko eremuetan sartzeko aukera ukatzen die emakumeei; adibidez, erakunde politiko eta zibiletan, botere-posizioetan eta, halaber, merkatuan eta lan ordainduan (Bosch et al., 2006).

Lanaren gaur egungo nozioa, emakumeen eta haien atribuzioen balio-galera barne hartzen duena, sistema kapitalistaren eta gizartea eraikitzeke prozesuan esku hartzen duten patriarkatuaren logiken emaitza da; izan ere, gizartean egin beharreko jardueretan sexu bakoitzak dituen erantzukizunak zehazten dituzte (Benería, 1987; Carrasco, 1991). Gizartea antolatzeke bi

⁶ Patriarkatuaren definizio asko aurki ditzakegu, eta, haietako bakoitzean, genero-desberdinkerietan eragiten jarraitzen duten mekanismoak argitzen laguntzen diguten elementuak daude. Horri dagokionez, proposamen esanguratsu hauek nabarmendu behar dira:

Hitzez hitz, «aiten gobernua» esan nahi du, eta autoritatean oinarritu zen; hain zuzen, gizarte-ordenan gizonezko-munduaren nagusitasunari lotutako adostasuna antolatu eta indartzeko erabili zen autoritatea (Pateman, 1995).

Definizio honek zentzu zabal eta dinamikoagoa du: «gizonek emakumeen gainean historikoki botere hartzea dakar patriarkatuak, ordena biologikoa oinarri hartuta, horri kategoria politikoa eta ekonomikoa emanda» (Victoria Sau, 1981:204).

Beste honetan, Gerda Lernerrek (1986) honela definitu zuen patriarkatua: «gizonek familiako emakumeengan eta haurrengan, eta [...], oro har, gizarteko emakumeengan duten nagusitasunaren adierazpena eta instituzionalizazioa» (Lerner, 1986:239).

modu horiek ezarri eta zehaztu zuten zer jarduera sartzen diren lanaren mugen barruan eta zein geratzen diren kanpo, baita jarduera horiek gizartean zer garrantzi duten eta diruaren aldetik zer aintzatespen-maila dagokien ere.

Horrek azaltzen du zergatik arduratu diren —kapitalismoaren hasieratik— batez ere gizonak, merkatuan egindako ekoizpen-funtzioez, eta, horrela, zergatik izan duten aukera, soldata moduan diru-sarrerak eskuratzeko bidea ematen duen esparru publikoan parte hartzeko⁷. Izan ere, ekoizpenean, klaseekiko —eta sexuarekiko— neutroak ez diren kategorien bidez adierazten da generoen hierarkia. Leku osagarri batean, baina eskuarki ekoizpenetik bereizita, ugalketa dago; eremu horretan, lanek ahaleginak, denbora eta erantzukizunak eskatzen dizkiete euren gain hartzen dituzten pertsoneri, eta ezin dira ekoizpenaren mundutik bereizi.

Ugalketak «ugalketa soziala eta biologikoa hartzen ditu barne, eta, beraz, haren esanahiak gizakien ugalketarena gainditzen du» (Benería, 1984:5). Hala, arlo hauek barne hartzen dituzten jarduerak ere sar daitezke termino horretan (Humphries eta Rubery, 1984): ugalketa biologikoa, gizakien haurduntza- eta ugalketa-prozesuan ardaztua, pertsonen garapen fisikoa lortzeko helburua duena; lan-indarraren ugalketa, zeinaren bidez erabil daitekeen —oraingo eta


⁷ Ez dezagun ahaztu sistema ekonomiko kapitalistan soldata dela gizarteratzeko diru-sarrera nagusia, biztanleriaren bizi-baldintza materialak zehazten dituzten ondasunak eta zerbitzuak lortzeko aukera ematen duena.

etorkizuneko— lanesku bihurtzen diren pertsonak —hezkuntza, lan-bizitzarako prestakuntza eta ikasketa, trebakuntza, eta teknika eta prozeduretarako egokitzapena sartzen dira, besteak beste—, eta ugalketa soziala, gaur egungo gizarte-sistemari eusten dioten baldintzei iraunarazten diena, etxeko kideen arteko eraginaren eta beste eremu batzuetan gertatzen denaren bidez.


Ugalketa-lanetan, zaintza-lanak bereizten ditugu, bai zaintza pertsonalekoak, bai etapa jakin batzuetan (haurtzaroan edo zahartzaroan, edo gaixorik gaudenean) edo bizitzan zehar etengabe (baliaezintasuneko edo dibertsitate funtzionaleko egoeran) mendekotasuna duten pertsonak zaintzekoak. Zaintzez gain, ugalketak etxeko lanak egitea dakar berekin, familiako kideek aldian behin egin beharrekoak. Jarduera horien bidez, ondasunak eta zerbitzuak ematen zaizkie familia-unitatea osatzen dutenei —eta, batzuetan, beste senide batzuei ere bai—, eta askotariko beharrak asetzen dituzte (garbitzea, elikagaiak erostea eta prestatzea, jantziak egitea eta jostea, etxeko instalazioak konpontzea, etxetresna elektrikoen mantentze-lanak egitea eta abar), gehienetan egunero-egunero. Orobat, elementu afektibo bat ere sartzen da lan horietan, senitartekoentzat edo gurekin lotura pertsonalak dituzten inguruko pertsonentzat egiten direnean (Vicent, 2017:236).

Azken batean, elkarrekikotasuna dago ekoizpen-lanaren eta ugalketa-lanaren artean, eta kapitalismo patriarkalaren genero-harremanen sistemaren euskarria da elkarrekikotasun hori. Bi lan horien artean irauten duen disoziazio tradizionalak bi sexuentzat ditu ondorioak, eremu bakoitzari balio desberdina ematen baitzaio. Gainera, gizarteak legitimatu egin du oro har emakumeei esleitzea ugalketa-funtzioak eta gizonek merkatuan duten rola sendotzea. Horrela, lanen antolaketa- eta balorazio-eskema desorekatu bat betikotu da (Campillo, 2000).

Lan-merkatuari erreparatuz gero, trebakuntza txikiagoa eskatzen duten lanbide eta sektoreetan aritzen dira emakumeak gehienbat; hau da, ordainsari txikiagoak jasotzen dituzte, baldintza okerragoetan aritzen dira eta lan-eskubideen babes-maila txikiagoa dute. Bestalde, etxean, desparekoa da arduren banaketa, merkatuari emandako ordu-kopurua gorabehera; izan ere, emakumeek lanaldi bikoitza egiten dute, ekoizpenaren eta ugalketaren esparruetan, eta horrek esan nahi du horiek esplotazio bikoitza jasaten dutela langile gisa: ekoizpenaren eremuan eta ugalketaren alorrean (Balbo, 1994 [1978]).



1. DIAGRAMA. LANEN BANAKETA ETA ESPLOTAZIO BIKOITZA



ITURRIA: NORBERAK EGINA

Emakumeek bi eremu horietan duten posizioa funtsezkoa da haiei eragiten dien egoera sozioekonomikoa, aurre egin behar dieten arazo larriagotuak eta ekonomiaren gorabeherak haiengan dituzten ondorio desberdinak ulertzeko. Hortaz, ez da kasualitatea gehienbat emakumeek izatea daturik txarrenak langabezia-tasari, iraupen luzeko langabeziari, prekarietateari edo bazterketa- eta pobrezia-arriskuei dagokienez; eta ez da kasualitatea krisiak edo haien kudeaketak eragindako une zurrunbilotsuetan emakumeek jasatea ondoriorik larrienak eta ondorio horiek emakumeentzat irautea luzarago.

Eraldaketa ekonomikoak eta ondorio desberdinak genero perspektibatik:

Atzera begira aztertuz gero, berretsi dezakegu azken hamarkadetan gertatutako aldaketa ekonomiko askok aldatu egin dutela emakumeek ekonomian duten egoera, eta, aldi berean, erakunde ekonomiko nagusien zeregina berrantolatu dutela, ugalketaren eremuan erantzukizunak hartzeari dagokionez.

Hiru dira, nagusiki, biztanleriaren ugalketarekin eta bizi-baldintzekin lotutako ondasunak eta zerbitzuak eskuratzea ahalbidetzen duten aukera nagusi edo eremuak, eta, testuinguru historiko eta geografikoaren arabera, aldatu egiten da gizartearen behar kolektiboekin duten konpromisoa. Hauek dira instituziook: merkatua, sektore publikoa eta familiak.

Ugalketari dagokionez, honela uler daiteke merkatua: lan ordainduan parte hartuz diru-sarrerak lortzeko eta gizarte-premiak estaltzen dituzten ondasun eta zerbitzuak erosteko aukera ematen duen eremua, familiek ugalketa-lanari eskainitako ahalegina txikitzen eta eman beharreko denbora laburtzen lagun dezakeena, lan hori merkantilizatzeko prozesu batean.


Bestalde, sektore publikoak edo Estatuak —aurrekontuen bidez— gizartea babesteko eginkizuna du, transferentzia ekonomikoak eginez edo zerbitzu publikoak emanez. Hartara, familien erosahalmena handitzen lagun dezake, bai eta familien zaintza-jarduera jakin batzuez arduratzen ere.

Azkenik, familiak dira ugalketan erantzukizuna duen hirugarren hanka, haietako kideek ahaleginak bideratzen baitituzte familiaren premiak behar bezala estaltzera. Ildo horretan, emakumeek hartu izan dituzte eta hartzen dituzte, batik bat, zeregin horiek beren gain.

Instituzio horietako bakoitzak modu desberdinak ditu ugalketa-lanak antolatzeke, eta erantzukizuna zer eremutan hartzen den izan daiteke lan horien zama birbanatzeko prozesuetan ageri den joera-mota zehazteko gakoa ([2. diagrama](#)). Ugalketan funtzio publikoa handitzen denean —zerbitzu publikoak edo transferentzia ekonomikoak handituz edo gizartea babesteko beste mekanismo batzuk garatuz—, ahaleginak sozializatu egiten dira, eta, ondorioz, ugalketa-lanak egonkortu. Beste kasu batzuetan, premiak merkatuaren bidez asetzen direnean, ugalketa merkantilizatu egiten da, eta zerbitzua ordain dezaketen familietara mugatzen da horietarako sarbidea. Sektore publikoak edo merkatuak lan-zama arintzeko aukera ematen badute ere, zaintzen zati bat beti geratzen da familien ardurapean; dena den, zati hori desberdina izango da aurreko eremu edo instituzioek ugalketarekiko duten konpromisoaren arabera.

Eskema honi esker, aise uler eta balora dezakegu nola eragin dioten ekonomian gertatutako aldaketek emakumeek ugalketa-lanetan duten zereginari. Gainera, lagungarria izango da, emakumeek —bi eremuetako langileak diren aldetik— jasaten dituzten ondorioei buruzko diagnostiko oso bat egiteko.

2. DIAGRAMA. ERAKUNDEAK ETA UGALKETAREKIN DUTEN FUNTZIONALITASUNA



ITURRIA: NORBERAK EGINA

Azken hamarkadetan lanean izandako eraldaketa-prozesuek, eta emakumeak eta gizonak lanean zer posiziotan dauden definitzen duten genero-baldintzatzaileek, goitik behera aldatu dituzte ugalketari emandako erantzuna, ugalketa onartzeko modu tradizionalak eta ugalketak dakartzan zereginak egiteko baldintzak.

Hainbat faktorek eragin dute lanen egungo banaketa berrantolatzea, eta familietan gero eta tentsio handiagoak sortzea, ugalketa-lanak beren gain hartzeko; hona hemen batzuk: joan den mendean zehar emakumeak lan-munduan sartu izana; horrekin batera, ongizate-estatuen babes-funtzioa zabaldu eta, gerora, murriztu izana, Europan behintzat; neoliberalismo ekonomikoa iritsi zenean enpleguaren baldintzek okerrera egin izana eta prekarietatea handitu izana, eta azkenaldian ekonomiaren bilakaeran eragin duten etengabeko egokitzapenak.

Faktore horien eta berrikiago gertatutako eraldaketen ondorioz, lanean dauden generoagatiko alde iraunkorrek desberdinkeriak areagotzen dituzte, etengabe atzeraka ari den merkatu honetan; baina, ez hor bakarrik, baita ugalketa sozialeko jarduerak gauzatzen diren beste eremu batzuetan ere; horrek larriagotu egiten ditu gizarteko talderik kaltebera eta prekarioenen zailtasunak, hala nola emakumeenak.

Aurrekoa oinarri hartuta, beharrezkoa da ugalketa-lanek zer eskatzen duten ulertzea, dauden hornidura-bideak (Estatua, merkatua eta familiak) bereiztea, lan-merkatuan eta politika publikoetan izandako aldaketek familia-unitateen ugalketa-aukeretarako izan dituzten ondorioak ulertzea, eta, halaber, jorratu diren familia-estrategia berrietan emakumeek duten protagonismoa aintzat hartzea, askotariko errealitateetan ugalketa sozialari erantzuten jarraitzeko.

4 Sekuentziazio didaktikoa

Unitatea lantzeko, zenbait saio teoriko-praktiko egin behar dira ikasgelan. Horrez gain, ikasleek ahalegin gehigarria egin behar dute irakastorduetatik kanpo, proposatutako ezagutzak eskuratu eta aplikatzeko. Jarraian, saio bakoitzerako denbora zehatzak jaso dira:

- Unitatearen eduki teorikoei buruzko sarrera eta hausnarketa egiteko eskola (2 ordu).
- Ikasleek irakastorduetatik kanpo egin behar duten lana eta bildutako informazioa bateratzearen ondoriozko eztabaidaren formatua azaltzea (30 minutu).
- Ikasleen lana ikasgelatik kanpo (4-6 ordu, gutxi gorabehera).
- Ikasleek informazioa aurkezteko eta eztabaida kolektiboa egiteko eskola (2 ordu).

Orain, unitate didaktikoa aplikatzeko faseak azalduko ditugu.

a) Unitatearen edukien sarrera eta haiei buruzko gogoeta teorikoa

Unitatea abiatzeko lehen saioan, irakasleak sarrerako edukiak azalduko ditu, ikasleek aldez aurretik dituzten ezagutzen arabera. Aurreko atalean —6.3. Hurbilketa teorikoa—, landu beharreko funtsezko elementuak azaldu dira, baita ezagutu beharreko funtsezko kontzeptuak eta erreferentziazko bibliografia ere, argumentu-hari koherente bati jarraituz informazioa zabaltzeko. Hari horren arabera, planteamendu orokorrago batetik tratamendu zehatzago batera joango dira ikasleak, eta aukera izango dute emakumeek gaur egun duten posizio ekonomiko desparekoa

testuinguruan jartzeko eta kolektibo horri oraindik ere eragiten dion diskriminazioari erantzuteko.

Saio horretarako, komenigarria da ikasleek unitate honetan ardatz diren kontzeptu batzuk bilatzea aldez aurretik eta beherago gomendatzen ditugunetako testu bat edo batzuk irakurtzea, terminoak kontzeptualizatzeko lagungarri izateaz gain, irakasleek interes berezikotzat jotzen dituzten gai batzuetan sakontzen baitute testuok:

- Termino hauen definizioak bilatzea: kapitalismoa, patriarkatua, generoa, genero-diskriminazioa, lana, lan ordaindua, enplegua, zaintzak, etxeko lana, ekoizpena eta ugalketa soziala.
- Gomendatutako testuak:

Unitatean landutako kontzeptu nagusien tratamendua eta horiei buruzko azalpena. 6.3. atalean jasotako erreferentziez gain, honako hauek iradokitzen dira:

Durán, María Ángeles (1991). La conceptualización del trabajo en la sociedad contemporánea. *Revista de economía y sociología del trabajo*, núm. 13-14, pp. 8-22.

Facio, Alda (1999). *Feminismo, género y patriarcado*. Lectura de trabajo-Madrid.

Erakundeak eta ugalketa sozialarekiko erantzukizunean duten zereginaren bilakaera:

Vicent, Lucía; Castro, Carmen; Agenjo, Astrid y Herrero, Yayo (2013).

El desigual impacto de la crisis sobre las mujeres. Fuhem. Recuperado a partir de http://www.ecosfron.org/wp-content/uploads/Dossier_El-desigual-impacto-de-la-tesis-sobre-las-mujeres.pdf

Generoak sistema ekonomiko kapitalistan eta patriarkatuan dituen ondorioak:

Hartmann, Heidi (1994). “Capitalismo, patriarcado y segregación de los empleos por sexos”. En Cristina Borderías, Cristina Carrasco y Carme Alemany (comp.). *Las mujeres y el trabajo: rupturas conceptuales*. Icaria. Barcelona, pp. 253-294.

Lawson, Max; Parvez, Anam; Harvey, Rowan; Sarosi, Diana; Coffey, Clare; Piaget, Kim & Thekkudan, Julie (2020). *Tiempo para el cuidado. El trabajo de cuidados y la crisis global de desigualdad*. Oxfam Internacional. Oxford. Recuperado a partir de:

<https://www.oxfam.org/es/informes/tiempo-para-el-cuidado>

Ekonomia feministako interes-guneen eta eztabaiden bilakaera:

Sánchez Cid, Marina (2015). “De la reproducción económica a la sostenibilidad de la vida: la ruptura política de la economía feminista”. *Revista de Economía Crítica*, 1(19), 58–76. Recuperado a partir de:

<https://revistaeconomiacritica.org/index.php/rec/article/view/25>

Material horiek proposatzen dira, irakasleek hausnarketarako gune bat ireki dezaten, sarrera teorikoa azaldu ondoren, eta ikasleek galdera hauen inguruko eztabaida batean parte har dezaten:

1. Nola definitzen da lana Ekonomiaren arloan? Zer elementuren arabera zehazten da Ekonomian zer hartzen den lantzat? Egokia da mugaketa hori? Zer jarduera hartu beharko lirateke lantzat, eta zergatik?
2. Nolakoa izan da bi sexuen eta egungo gizartean bizitzari eusteko beharrezkoak diren lanen arteko harremana? Zer faktorek eragiten dute gizonen eta emakumeen rola sexuaren araberako lan-banaketan? Zer ondorio ditu horrek?
3. Zure ustez, zein dira sistema ekonomiko kapitalista eta patriarkalaren oinarriak eta logikak? Nola jartzen dira agerian munduko eta Espainiako ekonomiaren egungo testuinguruan?

b) Ikasleek egin beharreko lana eta ondorengo bateratze-lanaren formatua

Arestian proposatutako eztabaida amaitutakoan, irakasleek jarraibideak emango dituzte, ikasleek informazio kuantitatibo eta kualitatiboa bil dezaten, alde batetik, emakumeek ekoizpen- eta ugalketa-lan ordainduetan edo ez-ordainduetan duten zereginaren bilakaerari buruz, eta, bestetik, erakundeek zaintzetan duten eginkizunari, kontziliazioak dakartzan erronka nagusiei eta ugalketa-erantzukizunen kolektibizaziorik ezaren ondoriozko arazoei buruz.

Horretarako, Espainiako ekonomiari buruzko informazio orokor edo berezi hau lortzeko beharrezko datu-baseetara jo beharko dute:

- Gizonek eta emakumeek munduko ekonomian duten lan-partaidetzaren tasa. Munduko Bankuak⁸ gizonek eta emakumeek lan-merkatuan duten presentzia potentzialari buruzko informazioa ematen du. Horri esker, emakumeak lan-munduan sartzeko prozesuaren ikuspegi orokorra lor daiteke, eta, eskura dauden datuetan oinarrituta, kontinente- eta Estatu-mailako konparazioa egin daiteke.
- Espainiako enplegu-arrakala. Gizonen eta emakumeen egungo enplegutasek arteko diferentzia (EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestan eskuragarri dagoen informazioa)⁹. Emakumeek enplegua lortzeko dituzten zailtasun handiagoak islatzen du diferentzia horrek, bai eta denboran zehar duen bilakaera ere.
- Espainiako soldata-arrakala (SA). Gizonen eta emakumeen diru-sarrerenek arteko portzentajeazko diferentzia, aldi jakin batean. Formula honen bitartez kalkulatzen da:

$$SA = \frac{\text{Gizonensoldata} - \text{Emakumeensoldata}}{\text{Gizonensoldata}} \times 100$$

Eskuarki, datu-base nagusietan —Labour Force Survey¹⁰, Eurostat eta Estatistikako Institutu Nazionala¹¹— eskuragarri dauden datuak bat datoz egokitu gabeko soldata-arrakalarekin. Gizonen eta emakumeen batez besteko soldaten arteko portzentajeazko diferentzia gordina neurtzen

⁸ Esteka honetan eskuragarri: <https://datos.bancomundial.org/indicador/SL.TLF.CACT.FM.ZS?end=2022&start=1960&view=chart>

⁹ Esteka honetan eskuragarri: https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176918&menu=resultados&idp=1254735976595

¹⁰ Esteka honetan eskuragarri: https://ec.europa.eu/eurostat/databrowser/view/SDG_05_20/default/table?lang=en

¹¹ Esteka honetan eskuragarri: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=10892&L=0>

du egokitu gabeko SAK, bi kolektiboen ezaugarri sozioekonomikoen arteko aldeak eta lantokia aintzat hartu gabe. Azaldu beharra dago SAKen adierazle horrek gizonen eta emakumeen soldaten arteko desparekotasunaren zati bati buruzko informazioa baino ez duela ematen.

- Etxeko lanen ondoriozko jarduera-ezaren tasa Espainian. Etxeko lanen ardura bere gain hartzeagatik aktiboki lan bat bilatzen ez duen biztanleriaren ehunekoa neurtzen du, gizonen zein emakumeen kasuan (informazioa BAIIn eta EINen dago eskuragarri)¹².
- Espainian zaintza-arrazoiengatik enpleguan dagoen partzialtasun-tasa. Zaintza-erantzukizunak euren gain hartzeagatik merkatuan lanaldi partzialeko lana duten enplegatuen ehunekoa, sexuaren arabera (informazioa BAIIn eta EINen dago eskuragarri)¹³.
- Espainian enplegua eta zaintza bateragarri egiteko neurriez — eszedentziak eta baimenak— baliatzen diren gizonen eta emakumeen ehunekoa. Enplegua adingabeen eta adinekoen zaintzarekin bateragarri egiteko eskura dagoen neurri bakoitzari heltzen dioten gizonen eta emakumeen ehunekoa¹⁵.

Bestalde, informazio kualitatiboa lortzeko, ikasleek landa-lan txiki bat egingo dute. Zehazki, hau proposatzen da: ikasleek elkarrizketa bana egitea euren ingurune hurbileko eta hainbat belaunalditako hiru emakumeri —30 eta 40 urte bitarteko bati, 50 eta 60 urte bitarteko bati eta

¹² Emakumeei bereziki eragiten dieten lan-baldintzen ondorioz, bestelako desberdinkeriez gain, alde handiagoa dago bi sexuek euren lan-bizitzan jasotzen dituzten ordainsarietan. Orobat, azpimarratu behar da desparekotasun hori pentsioetan eta prestazioetan ere agertzen dela, enpleguan aktiboki parte hartzen ez denean.

¹³ Esteka honetan eskuragarri: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=4155&L=0>

¹⁴ Esteka honetan eskuragarri: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=13583>

¹⁵ Esteka honetan eskuragarri: <https://www.inmujeres.gob.es/MujerCifras/Conciliacion/ExcedPermisos.htm>

60 urtetik gorako bati—, kontziliazioaren arloan duten egoera bereziari buruzko informazioa biltzeko. Hona hemen elkarriketa bideratzeko galde-sorta bat:

GALDERA SORTA

1. Nolakoa zen zure eguneroko bizimodua eta zertan ematen zenuen denbora zure bizitzako ohiko aste batean?
2. Zein zen diru-sarreraren iturri nagusia eta nola eragiten zion horrek laneko jardura guztien antolamenduari?
3. Nolako eragina izan zuten krisiek eta atzeraldiak etxeko egoeran eta jardueretan? Zer beste faktorek aldarazi zituzten enpleguan parte hartzeko aukera eta sartu ohi ziren diru-sarrerak?
4. Zer zerbitzu publikok estali zituzten familiaren premietako batzuk? Jasotzen zen transferentziarik edo bestelako laguntza publikorik? Baiezkoan, zer motatakoak eta zenbatekoak?
5. Zer pertsonarengana jotzen zen kontziliatu eta etxeko eta zaintzako lanak egin ahal izateko?
6. Zer aldaketa egin ziren denboren eta lanen antolamenduan, familiako beste kide bat iristean edo une jakin batean adinekoak edo gaixoak zaindu behar zirenean? Nola erantzuten zitzaien egoera horiei, eskuarki?
7. Pertsonak merkatuan lan egiten bazuen, zertan jarduten zuen? Zer baldintza zituen (diru-sarrerak, ordutegiak, kontratua, eskubideak...)?

c) Ikasleen lana ikasgelatik kanpo:

Aurreko informazioa lortzekotan, aldagai bakoitzerako adierazitako datu-baseak kontsultatu behar dute ikasleek, eta gero emaitzei buruz hitz egin (2 edo 3 orduz), bai eta hautatutako pertsonen elkarrizketa egin eta lortutako informazioa tratatu ere (2 edo 3 orduz). Beraz, unitateari 4 edo 6 ordu inguru ematea aurreikusten da, baina gehiago ere izan daitezke, ikasleen gaitasunen eta informazioa aztertzean beharrezkoa den sakontasun-mailaren arabera.

Informazioaren tratamendua desberdina izango da kasu bakoitzaren arabera.

- i. Informazio kuantitatiboa. Adierazitako aldagaien datuak kontsultatu ondoren, dokumentu bat egingo dute, datuak taula edo grafiko bidez bilduta —errazago ikus daitezkeen—, bai eta deskribapen labur bat ere, aldagaiak nola bilakatu diren eta bilakaera horretan zer faktorek eragin duten azaltze aldera.
- ii. Informazio kualitatiboa. Elkarrizketak egin ondoren, ikasleek gogoeta bat idatzi eta aurkeztu beharko dute, gai hauek jorratuz:
 - Zaintzekin lotutako jarduerak zehaztu eta ugalketa-lanen barruan zer berezitasun dituzten bereizten saiatu behar dute; hau da, ugalketa biologikoarekin, lan-indarraren ugalketarekin edo ugalketa sozialarekin lotuta dauden adierazi.
 - Gizonen eta emakumeen parte-hartzea bereizi behar dute, bai lan-mota bakoitzean, bai ekonomikoki eta sozialki aintzatespen-maila handiagoa edo txikiagoa duten zereginetan eta etxean gehien egiten diren lanetan.

- Elkarriketatuko pertsona bakoitzaren egoera baloratu behar dute, haren belaunaldiko emakumeen erronka nagusiei dagokienez, kontziliazioa errazteko funtsezkoak izan ziren beste baldintzatzaile batzuk antzemateko, generoaz gain.
- Aztertu behar dute zer aldaketa gertatu diren merkatuaren, Estatuaren eta familiaren zereginetan, biztanleriak behar dituen bizi-baldintzei eta zaintzei erantzuteko.

d) Informazioaren aurkezpena eta eztabaida kolektiboa:

Proposatutako egunean, praktikan planteatutako gaiei buruzko gogoeta azalduko dute —labur— ikasleek, eta, ondoren, eztabaida kolektiborako tarte abiaturako du irakasleek.

Hauek izan daitezke ikasgelan eztabaida egituratzeko galderak:

- i. Bazenekiten zenbat lan eskatzen dituen zaintzak? Desberdintasunik antzeman duzue lan horien artean, denborari, esfortzuari, joan-etorriari, eskatzen duten indarrari, aintzatespen-mailari edo errepikakortasunari dagokienez?
- ii. Tradizionalki nork hartu ditu bere gain lan horietako gehienak zuen etxean? Bazegoen loturarik diru-sarrerak zituen pertsonaren eta beste esparru publiko batzuetan zuen rola artean?
- iii. Nork egiten zituen denborarik gutxien eskatzen duten eta aintzatespenik handiena duten zaintzak? Eta errepikakorrenak eta egunero egin beharrekoak?
- iv. Aldatu da zaintzak antolatze eta emateko modua? Zer zentzutan?

- v. Taldeka, pentsatu zein den hartzailearen (zaintzak jasotzen dituztenaren) ikuspegitik zaintzak emateko aukerarik onena (publikoa, merkatuaren bidezkoa, komunitate-hornidura, familiaren bidezkoa), eta eztabaidatu horri buruz. Aukera hori bideragarria da egungo sistema ekonomikoan? Arrazoitu erantzuna eta proposatu aukera hori etorkizunean gauzatzeko beharrezkoak diren aldaketak.

5 Emaizten ebaluazioa eta balorazioa

Unitatea landu ondoren ikasleek ezagutzak eta gaitasunak zenbateraino barneratu dituzten baloratzeko, hasieran proposatutako helburuak hartu behar dira kontuan. Horretarako, item hauetan lortutako puntuazioak batzea iradokitzen da kalifikazioa zehazteko:

- Lehen saioko eztabaida teorikoan izandako parte-hartzearen maila eta edukia: % 20
- Praktikak: kalifikazioaren % 50. Informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa behar bezala lortu eta landu den hartuko da kontuan (% 20 eta % 30, hurrenez hurren), ikasleek ematen dituzten dokumentuen bidez.
- Bateratze-lana eta eztabaida: kalifikazioaren % 30. Praktikan eskatutako informazioaren aurkezpena (% 15) eta ondoren ikasgelako eztabaida kolektiboan izandako parte-hartzea (% 15?) hartuko dira aintzat.

6 Erreferentzia bibliografikoak

- Aglietta, Michel (1979). *Regulación y crisis del capitalismo*. Siglo XXI. México.
- Alonso, Luis Enrique (1997). Sindicalismo y ciudadanía. los dilemas de la solidaridad en la era de la fragmentación. En VV. AA., *¿Qué crisis?, retos y transformaciones de la sociedad del trabajo*. Donostia: Tercera Prensa: 181-220.
- Balbo, Laura (1994). La doble presencia [1978]. En C. Borderías; C. Carrasco y C. Alemany. *Las mujeres y el trabajo. Rupturas conceptuales*. Bartzelona: Fuhem-Icaria: 503-513.
- Benería, Lourdes (1987). *The crossroads of class & gender: industrial homework, subcontracting, and household dynamics in Mexico City*. University of Chicago Press. Chicago.
- (1984). *Reproducción, producción y división sexual del trabajo*. Colección Teoría, Ediciones populares feministas. Ediciones CIPAF. Txasko Unibertsitatea.
- Borderías, Cristina; Carrasco, Cristina y Alemany, Carme (comp.) (1994). *Las mujeres y el trabajo: rupturas conceptuales*. Bartzelona: Icaria-Fuhem.
- Bosch, Esperança; Ferrer, Victòria A. y Alzamora, Aina (2006). *El Laberinto Patriarcal*. Madril: Anthropos.
- Campillo, Fabiola (2000). *El trabajo doméstico no remunerado en la economía*. *Nómadas* 12: 98-115.
- Carrasco, Cristina (1991). *El Trabajo doméstico: un análisis económico*, Tesis Doctorales bilduma. Madril: Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.

- Carrasco, Cristina; Borderías, Cristina y Torns, Teresa (eds.) (2011). *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas*. Madril: Fuhem-Los libros de la Catarata.
- Carrasco, Cristina y Mayordomo, Maribel (2000). Los modelos y estadísticas de empleo como construcción social: la encuesta de población activa y el sesgo de género. *Política y Sociedad* 34; 101-112.
- De la Garza Toledo, Enrique (2005). *Del concepto ampliado de trabajo al de sujeto laboral ampliado. Sindicatos y nuevos movimientos sociales*. Consejo Latinoamericano de Ciencias Sociales Editorial. Buenos Aires.
- Durán, María Ángeles (2012). *El trabajo no remunerado en la economía global*. Madril: BBVA Fundazioa.
- Humphries, Jane & Rubery, Jill (1984). La autonomía relativa de la reproducción social: su relación con el sistema de producción. En C. Borderías (comp.), *Las mujeres y el trabajo: rupturas conceptuales*. Bartzelona: Icaria: 393-423.
- Lerner, Gerda (1986). *The Creation of a Patriarchy*. Oxford University Press. Nueva York.
- Millett, Kate (1969). *Política sexual*. Madril: Ediciones Cátedra.
- Naredo, José Manuel (2001). Configuración y crisis del mito del trabajo. *Archipiélago* 48: 13-23.
- Pateman, Carol (1995). *El contrato sexual*. Editorial Anthopos. México.
- Prieto, Carlos (2007). Del estudio del empleo como norma social al de la sociedad como orden social. *Papeles del CEIC* 1 (2007ko martxoa).
- Recio, Albert (1997). *Trabajo, personas, mercados: manual de economía laboral*. Bartzelona: Icaria.

Sau, Victoria (1981). *Diccionario ideológico feminista*. Barcelona: Icaria.

Todaro, Rosalda y Yáñez, Sonia (2004). *El trabajo se transforma. Relaciones de producción y relaciones de género*. Centro de Estudios de la Mujer (CEM). Santiago de Chile.

Vicent, Lucía (2017). *Precariedad laboral española. Una perspectiva de género*. Nazioarteko Ekonomia eta Garapeneko doktorego-tesia (UCM). Madril.

Unibertsitateko
Irakaskuntzarako
MgE-ren
baliabideak



Economistas
sin Fronteras